

Islandia: zer gertatu da?

Bazirudien dena oso ongi zihoazela Islandian. Baina 2008ko urrian hango finantza-sistema, eta oro har, sistema ekonomikoak porrot egin zuten. Zer dela eta porrot hura? Zeri dagokio?

Beste zenbait lekutan gertatu zen antzera, erroak finantza-sisteman daude. Sistema finantzarioa ez kontrolatzean datza kontu gehiena. Izan ere, hango ikertzaile batek (Snorri Agnarsson-ek) dioenez, islandiarrek kapital birtualez osaturiko airezko gaztelu erraldoiak eraikitzen lagundu zuten. Kapital birtual hura Islandiako aktibo errealearen gainetik zegoen erabat. Gazteluak are gehiago hedatu ziren, horrelako batzuk paraleloki mailegatzeko erabili baitziren inolako baliorik zeukaten gaztelu berriak eraikitzeko. Eta, era berean, azken gaztelu berri horiek, paraleloki, erabil ziren maileguetarako, eraikuntzan mailegu modura usatzeko.

Azken emaitza hondamena izan da, zeren aireko gazteluek ez baitzeukaten inolako barne-baliorik, ez baitzuten inongo baliorik ekoitzi, eta desagertu ziren eraikuntza berrietarako edo mantentzeko mailegu gehiago egiteko paradarik ez zenean egon. Geratu zen bakarra galerak ziren, baita eraikuntzarako, arrantzarako eta etorkizuneko zerga-errentetarako aktibo errealeko hipotekak ere.

Baina kontua ez da hor geratzen. Izan ere, maila globalean, edozein gizartek Islandiak izan duen esperientziari segituko lioke berandu baino lehen, agian, denok batera putzu berean murgilduz.

AEBek Islandiak ezagutu duen patua bera jasoko lukete. Haien industria finantzarioa munduan dagoen handiena da, diferentzia handiz. AEBek Islandiak bezala industria berezi hori eraiki dute beste jarduera ekonomikoaren ordean. Gauza bera Erresuma Batuan. Are gehiago, Islandiak iruzur haiek AEBetatik eta Erresuma Batutik ikasi zituen¹.

Jadanik jakina denez, AEBetako industria finantzarioa hain handia da, ezen bera porrot egiten uztea pentsaezinezkoa da boterean daudenentzat. Izan ere, industria berezi horretan dauden interes boteretsuek aparteko eragina dute gobernuan, inolako erreformarik ahalbideratzeko eta segurtatzeko. Halaber, giltza-erakundeei eta finantza sektoreari dagokien inongo informaziorik ez da izango eskuragarri. Ondorioz, zerga-ordaintzaileak dira 'erreskate operazioak' ordaindu dituztenak, are arrisku handiagokoen erantzukizuna jasotzen dutenak.

Puzturiko akzioek, zor obligazioek eta deribatibek gauzatu dituzte airezko gazteluak, guztiok kreditu-truke huts batzuen bidez lotuta. Kreditu-truke horiek titulu-jabeentzako ordainketa-garantia esan nahi dute. Horiek deus gutxi edo deus ez balio dute, zeren ez baitago ezelako erregulatzailerik aseguratuzeko garatia-saltzaileak gai direnik beren obligazioak betetzeko. Islandiako arazoaren magnitudea ikaratzekoa da.

Are ikaragarriagoak dira AEBei dagokien kopurua. Hona hemen AEBei dagozkien eta aipaturiko autoreak eman dituen zenbait datu.

1 Ikus <http://neweconomicperspectives.blogspot.com/2010/02/latvias-neoliberal-madness.html>.

Oraintsu amerikar zerga-ordaintzaileek ordaindu dute edo bermatu dute ia 25×10^{12} dolar. Gainera, txinatarrei 2×10^{12} zor dizkiete, eta 10^{12} dolar japoniarrei. Zor horiek gobernu federalak dauzkanei (zeintzuk handiagoak baitira) gehitu behar zaizkie. Horren gainean, estatu batzuen zorrak gehitu behar dira, baita hiri, udal eta herrialdeen zorrak ere. Gutxi balitz, gizabanakoen zorrak ere sumatu behar dira, gehienak aktibo neto negatiboko egoeran daudelarik.

Arazoa handiagoa da, hala ere. *Deribatiben aparteko galera albora ezinezkoa da krisi ekonomiko batean*. Galera aipaturiko zor globalari gehitu behar zaio. Uste da mundu osorako deribatiba horien kopuru totala, 600 eta 1.600×10^{12} dolarren artekoa dela, alegia, mundua osoan ekoizten den output totala baino 10-30 bider handiagoa. Deribatiba horien heren bat edo erdia AEBei dagokie². (Deribatiba horien gehiena baliorik gabekoa da gaur egun³.)

AEBak ez dira inoiz gai izango beren kanpo-zorra ordaintzeko, eta ez dute inoiz ordainduko. AEBetako industria finantzarioak ez ditu inoiz bere obligazioak zurituko. AEBetako finantza munduan dauden botereek ez dute inolako interesik arazo hori konpontzeko, kasu hartzekodunik handiena den Txinarekin irtenbidea topatzeko. Modu batez edo bestez dolarrak porrot egingo du eta horrek munduko sistema monetario osoa kinka larrian jarriko luke. Hori dela eta, zenbait estatuk haien arteko kanpo-transakzioak beste era batera gauzatu behar direla hasi dira pentsatzen azken bolada honetan. (Kasu, Errusiako Yekaterinburg izeneko herrian udan honetan egindako bilera.)

Eta Islandia? Islandiak martxan jarri behar du bere burua. Aipaturiko autoreak dioenez, Islandiak aldatu behar du, ahalik eta lasterren, herrialdearen zalantzazko paper aktiboko akzio gehienak (kasu, pentsio-fondoak) urrea bezalakoa diren aktibo errealetan: nahiz eta munduko finantza sistemak eta kanpo-trukeko sistemak porrot egin, urrea oraindik balioduna izanen da. (Urrea ere aipatzen du Bob Moriarty-k etengabe⁴.)

Baina urreak ez dauka paperezko diruak baino balio gehiagorik. Gaurko munduan puntu hori ilusioa besterik ez da. Kontua dirua eta kreditua zer diren ulertzean datza⁵.

Islandiar autoreak aipatzen dituen zenbait punturen artean, hona hemen garrantzitsuena: Islandiak beste herrialdeekin negozioak eta trukeak gauzatzeko, ez du erabili behar AEBetako dolarra. Hauxe da, izan ere, mundu mailan hedatzen ari den mezu berri eta sakona. Eta *Espainia una grande, libre eta superdemocrática*-n? eta Frantzian, haren '*grandeur*'-ean? Eta hemen, Euskal Herrian?

Islandia, eredia ote?

2 Ikus <http://www.bis.org/statistics/otcder/dt1920a.pdf>.

3 Ikus <http://www.321gold.com/editorials/moriarty/moriarty102708.html> eta <http://www.321gold.com/editorials/moriarty/moriarty120408.html>.

4 Ikus <http://www.321energy.com/editorials/moriarty/moriarty081008.html> eta <http://www.theaureport.com/pub/na/1991>.

5 Ikus <http://www.unibertsitatea.net/blogak/heterodoxia/dirua-eta-kreditua>. Halaber, ikus <http://bilbo.economicoutlook.net/blog/?p=7161>.

Aurreko atalean Islandiako egoera analizatu dugu. Orain Islandiaren eta Irlandaren (edo EBko beste edozein herrialderen) egoerak ikusiko ditugu.

(Gogoratu Islandiak bere moneta propioa daukala: koroa.)

Islandiak eta Irlandak, biek, zor handia jasaten dute, baina, Islandian ez bezala, Irlandako bankuetako pasiboak eurotan daude izendatuak, Irlandan erabiltzen den (eta berak kontrolatzen ez duen) monetan: eurotan.

Irlandak (baita Eurolandiako beste herrialde guztiek ere) bere moneta baztertu zuen euroa onartzean. AEBetako estatu bat bezala bihurtu zen. Beraz ez dago AEBak, Japonia, Kanada, Britainia Handia, Australia,... edo Islandia dauden egoeran. Ez dauka, barrura begira, politika monetarioa edo fiskala erabiltzeko espaziorik.

Ona beste arazo bat: badago funtsezko erlazio bat hazkunde ekonomikoaren eta zorra zuritzeko interesak ordaintzeko ahalmenaren artean. Arriskurik gabe egoteko, gobernu ez-subirano batek, Irlandakoak kasu, ez luke ordaindu behar bere hazkunde tasa nabarmenki gainditzen duen interes tasa⁶.

Izan ere, zorra zuritzearen, gobernu errentak lortzeko, ortodoxiaren arabera, gobernuak gastuak murriztu behar ditu eta zergak handitu. Horrek Irlandako hazkundeari kalte egingo dio. Are gehiago: Irlandak behar du eurotan bere aldeko fluxua gainditzea, bere kanpo balantzaren bidez, alegia, EBrekiko inportazioak murriztuz eta esportazioak handituz. Horretarako, ortodoxiaren arabera, barneko hazkundera murriztu behar da, inportazioak jaisteko eta nazioarteko lehiakortasuna areagotu. Horrek, berriz, barneko hazkundera murriztuko du, gobernuaren zorrean ordaindutako interes tasaren azpian.

Eta horixe da, hain zuzen ere, EBko elitea proposatzen ari dena.

Are okerragoa dena. Normalki, ekonomiaren hazkunde geldoak errenta-tasaren hazkunde geldoa esan nahi du. Barneko austeritateak aurrekontu defizita txartu egiten du, zeinak gobernuaren zorrean interes-tasak areagotzen dituen. Gurpil zoro bat sortu daiteke, non zor zerbitzua lehertzen baita hazkundera geldotzen den heinean eta interes tasak handitzen diren moduan.

Irlandak bere moneta subiranoa balu, gobernuaren defizitaren tamaina ez litzateke izango inolako arazoa. Irlandak ez dauka Islandiak daukan ahalmena aurrekontu defizita eramateko hazkundera areagotzearen, ezta interes-tasak jartzeko ere ekonomiari laguntzearen (EBZtik baitatorkio interes-tasen kontua). Ezin du moneta (euroa) devaluatu, nahiz eta krisian egon, Greziari, Portugali edo eta Espainiari gertatzen zaien bezala.

Hala ere, Irlandako gobernuak aukeratu zuen bere bankuak babestea. Islandiak, aldiz, hiritarrek birritan bozkatu dute banku handiei diru-laguntza ez emateko. Gobernuaren ahalegina, beste hainbat herrialdetan bezala, atzeritar hartzekodunen diru-laguntzaren kostuak jendearengana jartzea izan zen. Horixe da islandiarrek baztertu dutena.

Arazoa oso kezagarria izanik ere, Islandiako kasua 'hobea' da Irlandakoa baino, zeren Irlandan banku-pasibo guztiak eurotan daude izendatuak, eta Irlanda ez da batere subiranoa euroarekiko.

⁶ Ikus <http://neweconomicperspectives.blogspot.com/2011/05/should-irish-voters-follow-example-set.html>.

Jakina denez, barrurako, Islandiak ez du euroa erabiltzen. Afera kanpora begira azaltzen da. Izan ere, horrelako ekonomia txikiak ezin du eurotan erakunde pribatuen izendaturiko zor guztia zuritu, batez ere banku handienen zorra. Islandiako bankuetako, eurotan inolako babesik gabe gobernuaren aldetik eta eurotan izendaturiko, segurtasunik gabeko gordailuak eskuratu zituzten zenbait kanpotarrek (bezero gehienak Britainia Handian eta Herbehereetan izanik).

Gobernuaren arabera, Islandiak Europako banku handiek egindako mailegu txarrak ordaindu behar zituen. Zorrak eurotan dauden izendatuak ez koroetan, hau da, Islandiak kontrolatzen ez duen atzerritar monetan. Baina jendeak uste izan du nahiko dela. Jadanik islandiarrek aski sufritu dute atzerritar monetan (eurotan) era ez-diskriminatu eta kontrol gabeko batez mailegatu zuten erakunde finantzarioek sorturiko finantza-krisitik. Orain, arriskuak hartu zituzten atzerritar inbertsiogile horiek, Islandiako bankuetan eurotan izendaturiko gordailu ez-aseguratuak eutsiz, bereganatu behar dute galera. Izan ere, aurreztaile batek ez badu nahi arriskutan jarri, berak soilik aktibo ziurrak bereganatu behar ditu, gobernu edo botere subirano batek bermatutako segurtasunezko aktiboak. Randall Wray-k dioenez, kanpotar haiek, arriskutan beren buruaz jarri zutenek, orain galerak beren gain hartu beharko dituzte.

Boto emaileek oso ongi egin dute. Izan ere, horixe baita merkatu diziplinak eta subiranotasunak diotena. Aurreztaile batek ez badu nahi arriskutan jarri, berak soilik aktibo ziurrak bereganatu behar ditu, gobernu edo botere subirano batek bermatutako segurtasunezko aktiboak.

Islandiak nahi izan du soilik bere egoiliarren gordailuak (koroetan daudenak) bermatzea, atzerritarrek zeuzkaten gordailuetako kasuan (eurotan daudenak), Islandiako bankuek haiei ez ordaintzea ahalbidetuz. Horixe izan da jendearen bakezko 'iraultza' miragarria.

Nahiz eta biak, Islandia eta Irlanda, oso zordunak izan beraien bankuek atzerrira mailegu asko egin zutelako, Islandiak bere moneta dauka. Arazoa da, Islandiako bankuek atzerritar moneta batean (eurotan) egin zituztela beren kanpo maileguak, Islandiaren subiranotasun monetarioaz haratago, oso haratago, joanez. Eta orain, eurotan izendaturiko zor handi horri aurre egin behar dio. Hori ezina denez, gobernuak nahi zuenaren aurka aritu dira biztanleak.

Ondorio zuzena eta argia: Islandiako hiritarrek beren gobernuari presionatu diote banku handiei diru-laguntzak ez gauzatzeko. (Agian, Irlandak eta Eurolandiako beste estatuek ere, hortik ikas dezakete.)

Baina tartean, hala Islandiak nola Irlandak lanpostuak behar dituzte. Horretarako, Wray-ren arabera, hoberena da lanpostuen babes orokorreko plana martxan jartzea. (Warren Mosler-ek ere aspaldian plan berezia aurkeztu zuen, gobernuak *employer of last resort* -hots, azken baliabideko enplegatzailea- izanik⁷. Baita Bill Mitchell-ek⁸ ere.)

Horrelako programa finantzatzeko, gobernu zentrala behar da. Eta hemen dago beste arazo bat. Gobernu subirano bat (bere monetarekin, Islandia kasu) beti horrelako programa bat finantziarki

7 Ikus <http://moslereconomics.com/mandatory-readings/full-employment-and-price-stability/>.

8 Ikus <http://bilbo.economicoutlook.net/blog/?cat=23>.)

babes dezake. Irlandak, bere moneta utzi eta gero, euroa onartu zuen, *de facto*, kanpoko moneta bat (euroa) onartuz. Beraz, Irlandak ezin du lanpostu berrien aldeko horrelako programa gauzatu.

Diru Teoria Modernoko autoreek (Wray, Mosler, Mitchell, ...) adierazi dutenez, moneta subiranoaren kasuan, gobernuak salmentarako edozein kantitate babes dezake bere monetan. Gobernuak konputagailuaren teklatu-kolpeekin gastatzen du, bankuen kontuak kreditatuz.

Gainera, moneta subiranodun herrialde batentzat, interes-tasaren afera jardunbide aldakorra da, zeinak ez baitauka zer ikusirik solbentziarekin. Gobernuak interes-tasak baxuak ukan ditzake eta interesak ordaindu teklatu-kolpeen bitartez, bankuetako kontuak interesarekin kreditatuz.

Islandiak ez dauka inolako arazorik politika hori aurrera eraman ahal izateko. Irlandak, aldiz, (eta EBko beste edozein herrialdek) arazo handiak dauzka. Ezin ditu kontrolatu bere mailegu hartzearen tasak, zeintzuk merkatuetan jartzen baitira.

Islandiaren eta Irlandaren arteko ezberdintasunak nabariak dira. Edozein kasutan, Irlandan eta EBko herrialde guztietan ere boto emaileek, Islandiarrek bezala, austeritate-programei aurre egin beharko liokete, lehen neurri gisa.

Beste aldetik, Irlandako kasuan, lanpostuen babes orokorreko programa berezi eta berria Irlandako gobernuak finantzatu beharko luke, Europako Banku Zentraletik finantza-laguntza baten bidez edo EBko beste erakunde berri baten bitartez (kasu, AEBetako Altxor Publikoaren antzeko erakunde berri baten bidez). Horretarako, aldiz, EBn benetako aldaketa egon beharko litzateke, EB bera beste modu batez eratuz eta EBko arazo fiskala erdigunean jarritz.

Islandia, berriz, libre dago bere lanpostuen babes orokorreko programa martxan jartzeko.

donejurgi